Por último, pregunta que pasa con Gurnizar y las obras ejecutadas, si están viviendo o que están haciendo ahí. Responde la alcaldesa Sra. Remiro Esnoz, que no tiene conocimiento de lo que se está haciendo. Toma la palabra la Secretaria que informa que hace unos días habló con el letrado del Gobierno de Navarra que ha llevado este asunto, y que le informó que iba a retomar el tema ya que es un tema de competencia del Gobierno de Navarra, si bien el tema de la licencia de obras y urbanístico es competencia del ayuntamiento y también debería actuar en lo que le compete.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión siendo las 19:40 h. del mismo día, de lo que doy fe.

Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2025eko otsailaren 26ko 17:30ean, Erroibarko Udala bildu zen lehen deialdian ohiko bilkura egiteko. Bertaratuak: Elena Jiménez Rey, Miren Nekane Nuño Iturri, Oier Zaldua Ortiz de Guzman, Enrique Garralda Erro, Teresa Bidaurreta Azcarate eta Juan Luis Fermin Gil García zinegotziak, bilkuraburu alkatea, Leire Remiro Esnoz izan zen, eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

Gari zerrendari ekin baino lehen Haize Morea taldeko Jiménez Rey zinegotziak eta ETI taldeko Erro Garralda zinegotziak bilkura grabatuko dutela jakinarazi dute.

1.- 2024KO ABENDUAREN 17KO BILKURAREN AKTAREN ONESPENA.

Aldeko sei botoz eta abstentzio batez (Bidaurreta and.) 2024ko abenduaren 17ko bilkuraren akta onartzea erabaki da.

2.- 2024ko ABENDUAREN 13tik 2025eko OTSAILAREN 21a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, Remiro Esnoz andreak, 2024ko abenduaren 13tik 2025eko otsailaren 21a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.- 2025eko LAN EGUTEGIA ONARTZEA

Remiro Esnoz alkateak hitza hartu du eta proposatu du 2025eko lan egutegia onartzea.

Horiek horrela egutegi hau onetsi da aho batez:

Aste barruko jaiegunen egutegia 2025. urtean langileentzat. Hona hemen 2025. urterako jai ordainduak eta errekuperatu gabeak:

- urtarrilaren 1: Urte Berri
- urtarrilaren 6: Errege Eguna
- apirilaren 17a: Ostegun Santua
- apirilaren 18a: Ostiral Santua
- apirilaren 21a: Pazko astelehena
- Maiatzaren 1a. Lanaren Festa

- uztailaren 25a: Santiago Apostolua
- Abuztuaren 15a: Ama birjinaren jasokundea
- Azaroaren 1a: Santu guztien eguna.
- Abenduaren 3a. Xabierko San Frantzisko
- Abenduaren 5a, osteguna: Tokiko festa, San Nikolas
- Abenduaren 6a: Konstituzioaren eguna
- Abenduaren 8a: Ama birjina sortzez garbia
- Abenduaren 25a: Eguberri Eguna

Halaber, baliogabeak izanen dira 2025. urtean epeak kontatzeko, igande guztiak eta Udalaren bulegoetarako jaiegun diren egunak.

Erroibarko Udaleko urteko lanaldia, 1592 benetako lanordukoa, honela banatuko da: Eguneroko lanaldia, astelehenetik ostiralera, 7 ordu eta 20 minutuko izango da, 8:00etatik 15:00etara. Gainerako 20 minutuak langileak aukeratuko ditu eta malgutasunez, 7:40tik 8:00etara eta 15:00etatik 15:20ra bitartean.

Lanorduetan akordioak lortzen saiatuko da beti, bizitza pertsonala eta lanuztartzea ahalbidetu eta errazteko. Gai hori bereziki kontuan hartuko da seme-alaba adingabeak, seme-alaba ezgaituak, odolkidetasun eta ezkontza-ahaidoresuneko lehen eta bigarren mailako pertsonak, gaixoak, menpekoak eta abar daudenean. Eta justifikatuta egon beharko du.

Erregelamenduz finkatutako oporrak administrazio-organo eskudunak baimenduko ditu.

Langileek beren aferetarako 3 egun hartu ahalko dituzte eta Langileen Estatutuan ezarritakoaren arabera beste egun batzuk sartzen dira, gehienez ere 4 opor egun gehiago lan egindako urte gehien dituzten langileentzat eta 9 egun norberaren kontuetarako.

4.- 2025ean LANGABETUAK KONTRATATZEA ETA LAGUNTZAK ESKATZEA

Remiro Esnoz alkate andreak hartu du hitza eta jakinarazi du urtero langabetuak kontratatzenten direla Erroibarrerako lanak egiteko. Aurten Erroibarko langabetu bat kontratatzea proposatzen du, lanaldi osoz, 2025eko apirilaren 1etik irailaren 30era (6 hilabete)

Pertsona horren lanaldia oso baliagarria izango da Udalarentzat, zerbitzu anitzetako bi langileenak osatzeko eta udaleko lan-agendako zereginei heldu eta horiek garatzeko.

- Hertiak berrikustea: Sorogain, Lastur, Measkoitz, Urniza, Larraingoa, Loizu
 - Urrozko errepidearen inguruko hertiak berrikustea: Ardaitz, Larraingoa.
 - Sorogaingo errepideko arekak eta estolderia-hustubideak garbitzea
 - Sorogaingo uraskak mantentzeko, berrikusteko eta konpontzeko lanak
 - Sorogaingo, Lasturreko, Laurentxiko, Larringoako eta Ardaizko pistak mantentzeko lanak
-
- Loteak markatzea
 - Ur-biltegiak inguruak garbitzea
 - Ur zerbitzuko matxurak konpontzen laguntzea
 - Iturriak garbitzea eta mantentzea
 - Herrietako karriketan eta Sorogaingo errepidean dauden zuloak konpontzea (hormigoiztatzea eta bikeztatzea)
 - Kontzejuetan egin beharreko lanak, aldez aurretik eskatuak (aste honetan galdeategia igorriko zaie)

Gainera, beste pertsona bat udal taldean sartzen bada, ondorengo proiektuekin zerikusia duten lanak egiten lagunduko du

- SOROGAINGO GUNEAREN PROIEKTUA: instalazioak garbitzeko eta egokitzeko lanak; iaz ere ordu asko eman zituen langileak lan horietan.
- SUTEEN AURKAKO PLANA, plana egitean sor daitezkeen lanak
- IBARREKO BIDEEN PROIEKTUA: proiektuarekin zerikusia duten sasi-garbiketak

Modu berean, kontzejuetan egin beharreko lanetan lagunza emango du, aldez aurretik eskatutako lanetan hain zuen ere. Iaz kontzejuei inuesta bat pasa zitzaiela jakinarazi du, eta aurkeztutakoarekin balorazioa egin zela; proposamen batzuk onartu egin ziren eta beste batzuk ukatu, eta udalbatzako kideei zerrenda bat banatu zitzaien kontzejuei eta udalari egindako lanekin.

Horiek horrela, aho batez erabaki da:

- 1.- Pertsona bat kontratatzea lanaldi osoz sei hilabeterako.

2.- Interes orokorreko eta sozialeko obrak eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzearagatik Nafarroako toki erakundeei diru-laguntzak emateko deialdian dirulaguntza eskatzea.

5.- SOROGAINGO BAZKALEKUEN APPROBETXAMENDUAREN ARAUAK 2025

Remiro Esnoz alkateak hitza hartu du eta proposatu du 2025eko Sorogaingo bazkalekuen aprobetxamenduaren arauak onartzea.

Bidaurreta zinegotziak hitza hartu du eta esan du “aziendaren antolaketa” ataleko 1 d) atalean hau esaten dela: A-Erroibarko azienda maiatzaren 10ean markatuko da. Egoera klimatologikoak hala eskatzen badu edo larreen bolumenaren kalitateak gomendagarria egiten badu, Erroibarko Udalak azienda sartzeko datak aldatzea erabaki ahal izango du.

Egoera klimatologikoak hala eskatzen badu ... dioen tokitik aurrera, uste dute azienda sartzeari eragiten diola eta ez marka egingo den egunari, hortaz, uste dute hobe dela hori jartzea b atalaren ondoren, Azienda maiatzaren 10etik aitzina sartuko da Sorogainen dioen tokian, edo d atalean, Udaberriko marka egunean Sorogaingo larreetan sartzera datorren ibarreko azienda egun hori baino bi egun lehenago egon ahal izango da Sorogainen, eta bakarrik Arbilletan, baina nahitaez markaren egunean jaitsi beharko da eskortara dioen tokian, orduan azienda sartu ahal baita.

Bidaurreta zinegotziak azaldu duena logikoa denez, esaldia b) atalean jartzea erabaki da.

Bidaurreta zinegotziak berriro hartu du hitza eta b atalari dagokionez, frantses aziendari, 4.. paragrafoan, %20ko errekgargua gehiegi iruditzen zaie eta %10 proposatzen dute. Alkateak dio portzentaje hori ez dela aldatu, aurreko urteetan ere portzentaje hori ezarri dela eta ez zaiola iruditzen beharrezkoa denik aldatzea.

Aho batez erabaki da, Bidaurreta zinegotziak egindako aldaketa kontuan hartuta, Sorogaingo bazkalekuen 2025eko arauak onartzea:

SOROGAINGO BAZKALEKUEN 2025EKO APPROBETXAMENDUAREN ARAUAK

a) *Erroibarko abeltzain interesdunek aziendak Udal idazkaritzan apuntatuko dituzte 2025eko apirilaren 1a baino lehen, eta horretarako prestatutako eskabidea aurkeztuko dute. Abeltzain bakoitzeko ALU kopurua gehienez ere 70 ALU izanen da.*

- b) Erroibarko abeltzain interesdunek, abereak larreetan sartu baino lehen, legez eska daitezkeen osasun-zuirtagiriak Udal idazkaritzan aurkeztu beharko dituzte.
- c) Azienda-markak honako ordutegi eta tokietan izanen dira:
- Udaberriko marka: 2025eko maiatzaren 10ean, 9:00etatik 14:00etara, Sorogaingo eskortan.
 - Urepeleko marka: 2025eko maiatzaren 24an, 10:00etatik aitzina Urepelen.
- d) Aziendaren antolaketa:
- A) Erroibarko azienda maiatzaren 10ean markatuko da.
- B) Azienda maiatzaren 10etik aitzina sartuko da Sorogainen. Egoera klimatologikoak hala eskatzen badu edo larreen bolumenaren kalitateak gomendagarria egiten badu, Erroibarko Udalak azienda sartzeko datak aldatzea erabaki ahal izango du.
- C) Data hori baino lehen debekaturik dago azienda Sorogaingo bazkalekuetan sartzea.
- D) Udaberriko marka egunean Sorogaingo larreetan sartzera datorren ibarreko azienda egun hori baino bi egun lehenago egon ahal izango da Sorogainen, eta bakarrik Arbilletan, baina nahitaez markaren egunean jaitsi beharko da eskortara.
- E) Markaren egunean ez da aziendarik markatuko karroetan.
- F) Azienda Sorogainera eramatzen duten bakoitzean, abeltzainek aguazilarri jakinarazi beharko diote, bazkalekuak kontrolatu ahal izateko.
- e) Sorogaingo bazkalekuen 2025eko kanonak hauek izanen dira:
- A) Ibarreko azienda:
1. TARIFAK

a. Behi-azienda	33,00 €.
b. Zaldi-azienda	43,00 €.
c. Ardi-azienda	4,30 €
d. Belar erdia (uztailak 15)	2,15€
e. Ahuntz-azienda	4,30 €.
 2. Markaren egunean markatzen ez diren azienda guztiak, ezinbesteko kasuetan izan ezik, ostiraletan eta astelehenetan bakarrik markatuko dira, 8:00etatik 14:00etara, Sorogaingo mahukan (etxeko mahuka), eta %10 gehiago kobratuko zaie. Modu berean, azienda aldaketak egiten ditutzenei %10 gehiago kobratuko zaie.
 3. Ordaintzeko baldintzak: Sorogainen sartuko den aziendaren prezioaren %50 urteko apirilaren 30a baino lehen kobratuko da banku-igorpenaren bidez. Gainerako %50 urteko uztailaren 31 baino lehen kobratuko da banku-igorpenaren bidez.

4. Kopuru horiek ordaintzen ez dituenari Udalak ez dio NPBrako hektarearik ziurtatuko. Modu berean, hurrengo urtean ezin izango du aziendarik sartu Sorogainen.

5. Belar erdira (uztailak 15) sartuko den aziendari dagokion kopuru osoa ekainaren 30a baino lehen kobraztuko da banku-igorpenaren bidez.

6. Irailaren 1etik aurrera sartzen den ardi aziendari 1,3€ kobraztuko zaio buru bakoitzeko, eta kanona abuztuaren 31 baino lehen ordaindu beharko da.

7. Erroibarren bizi diren 30 urte edo gutxiagoko abeltzainek eta abeltzain ustiategi baten titular gisa 4 urte edo gutxiago daramaten abeltzainek %10eko murrizketa izanen dute Udal honek ezarritako kanonaren gainean. Era berean, abeltzaintzan nagusiki ari den abeltzain emakume orok % 10eko murrizketa izanen du Udal honek ezarritako kanonean.

B) Frantses azienda:

1. TARIFAK

a. Behi-azienda 71,00 €.

2. Baigorriko Ibarreko sindikatuak Sorogainen sartuko den aziendaren zerrenda eta kanona aurtengo maiatzaren 15a baino lehen ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

3. Urepeleko Marka egunean Sorogainen sartzen den frantziar aziendaren %75 gutxienez oinez joango da markaren egunean, eta gaineko azienda Sorogainera kamioietan joango da, Baigorriko Sindikatuaren baimenarekin.

4. Markaren egunean markatzen ez den azienda oro ostiral edo astelehenean markatuko da, 8:00etatik 14:00etara Aztakarriko mahukan, ezarritako kanonaren gaineko % 20ko errekarluarekin. Kasu horietan ezin izanen da inolako justifikaziorik alegatu.

5. Azienda Sorogainera eramaten duten bakoitzean, abeltzainek aguazilarri jakinarazi beharko diote, bazkalekuak kontrolatu ahal izateko.

C) Kanpoko azienda:

1. TARIFAK

a. Behi-azienda 71,00 €

2. Frantziako ardiak sartzeko debekua mantentzea 2025. urtean.

3. Frantziako eta kanpoko zaldi-azienda sartzeko debekua mantentzea.

4. Udal ordenantzaren arabera indarrean dauden debekuen informazioa ematea:

a) Debekaturik dago Burguete arrazakoak ez diren hazitarako zaldiak sartzea.

b) Debekaturik dago zezenkoak eta zezenak sartzea.

6.- TXANGOA ETA MEASKOITZEKO BALDINTZA PLEGUAK ONARTZEA

Remiro Esnoz allkateak hartu du hitza eta proposatu du Txangoa eta Measkoitzeko larreak esleitzeko baldintza-agiriak onartzea, eguneratzeko baitzeuden eta ordu arte luzapenen bidez kudeatzen baitziren.

Pleguak bozkatu dira, eta Txangoako plegua aho batez onartzea erabaki da. Measkoizko pleguari dagokionez, Bidaurreta zinegotziak dio baldintza-agirian 48,53 ha jartzen dituela, eta uste du 8 ha baino ez direla larreak ere islatu beharko liratekeela, Txangoako baldintza-orrian azaltzen den bezala deskribatuz. Denak ados egonik, aho batez erabaki da, datu hori sartuta, Measkoitzeko baldintza agiria onartzea.

7.- BIDEEN BALDINTZA PLEGUA ONARTZEA (PSTD)

Remiro Esnoz alkateak dio, proiektu honi dagokionez, zeina DZPn sartutako hiru proiektyuetako bat baita, bidezkoa dela esleipenerako baldintzen plegua onartzea. Idazkariak baldintza-plegua baliozkotzen duen txosten juridikoari buruz hitz egiten du, Kontratuei buruzko Foru Legearekin bat etorri, eta txosten hori korporazioko kideei bidaliko zaie.

Aho batez erabaki da expedientea onartzea, gastua onartzea onartutako aurrekontu-partidaren kontura eta kontratatzeko baldintzen agiria onartzea, prozedura irekia erabiliz, eta lizitazioaren oinarrizko prezioa 47.309,78 eurokoa izatea, BEZik gabe.

8.- HERRI-LURRETAKO ORDENANTZAREN ALDAKETA ONESTEA

Alkate andreak hartu du hitza, 4. arloko batzordean lan egin ondoren, herrilurren ordenantzako 18., 19. eta 23. artikuluetako aldaketa, hasiera batean onetsi behar dela osoko bilkuran.

Bidaurreta zinegotziak hartu du hitza eta batzordean esandakoa berretsi nahi du. Bere ustez, ordenantza aldatzeak ez du presarik, Urnizari dagokiona kentzea ulertuta, baina ez dute uste ADI ordenantzatik desagertu behar denik. Kintoko Mankomunitateak ez du herrilurren ordenantzarik, eta uste dute Erroibarko herrilurren ordenantzari hel dakioka. Halaber, uste dute abeltzainek jakin behar dutela zenbat hektarea dauden Kinton NPBrako hektarea horiek ziurtatzeko.

Remiro Esnozek erantzun du ADI ez dela Erroibarko herri-lurra eta ez duela Erroibarko herri-lurren ordenantzan egon behar. Bidaurretak esan nahi badu ADIren

larreen aprobetxamendua Erroibarrerako aurreikusita dagoela, iaz ere aipatu zen egoera hori aldatuko zela, eta Kinto Mankomunitateak enkantera aterako ditu Bidaurreta zinegotziak erantzun du orduan aipatu zela begiratu zitekeela eta horri buruz hitz egingo zela, eta jada ez da beste batzorderik egon gai hori lantzeko. Zaldua zinegotziak hartu du hitza eta esan du arrazoia dela ez direla Erroibarko herrilurrik eta larre horien egoera aldatu egingo zela eta, beraz, ez zitzaiola ikusten ordenantzan agertzen jarraitzeko zentzurik. Alkateak berretsi du gauza bat dela aprobetxatu ahal izatea, eta beste gauza bat dela Erroibarko herrilurretako parte balira bezala agertzea, hala ez denean. Bestalde, hektareak banatzeari dagokionez, orain proposatzen ari dena da ordenantza gure herri-lurren arabera egokitzea. Garralda zinegotziak galdetu du ea batzorderik egingo den aprobetxamenduak banatzeko eta alkateak baietz erantzun du.

Gaia eztabaidatu ondoren, erabaki da aldeko lau botoz (Remiro Esnoz, Jiménez Rey, Nuño Iturri eta Zaldúa Ortiz de Guzman) eta hiru abstentzioz (Bidaurreta Azkárate, Gil García y Garralda Erro), Erroibarko herri-lurren ordenantzaren aldaketa hasiera batean onartzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Hona hemen aldaketak:

18. Artikulua aldatzea

Atala kentzea. Urniza, Gurbizar, Larraingoa, Oiaide (693,64 has.) eta Orosa-Eguerdiz-Ardaitz (211,32 has.)

Eta 6. Atala kentzea. “Adi, larreak txilardiekin, belarki-larreak, iratzeak eta basoak.”

19. Artikulua aldatzea

Hau kentzea: “–Adi: 50 A.L.U. “ eta “Urniza, Gurbizar eta Larraingoako Jaurerriak: errepeideko eskuinaldea, Erroko aldea 30 A.L.U. Errepeideko ezkerreko aldea, Orondritz-Loizuko eremua 35 A.L.U. Orosa: 30 A.L.U.”

23. Artikulua aldatzea

Atal honetatik: -Sorogaingo eta Adiko bazkalekuak: bizilagun abeltzainei adjudikatuko zaizkie zuzenean, aurreko artikuluan aipatu moduan, eta "aziendak bertan" izeneko sistema erabiliko da, larratze estentsiboko araubidean Honakoak kendu dira: lehenengo paragrafotik “Adiko bazkalekuak” eta azkeneko paragrafotik “Urniza,

Gurbizar, Larraingoa, Oiaide eta Orosako bazkalekuak, enkante publikoren bidez adjudikatuko dira.”

9.- SOROGAINGO ATERPEARAREN ADJUDIKAZIO PROPOSAMENA ONARTZEA.

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du puntu honetan bi gai daudela; batetik, kontratacio mahaiaren akta dago, proposamena osoko bilkurara eramateko, Sorogaingo errentamendua Jon Muguerzari esleitzu, baina, bestetik, formalki aurkeztu du uko egitea. Egoera honen aurrean ez du zentzurik kontratacio mahaiaren proposamena onartzeak eta bidezkoa dena da uko egitea onartzea eta errentamendu eta kontzesio kontratua enkantera ateratzea berriro. Aho batez erabaki da, Sorogaingo aterpetxearen errentamendua eta zerbitzuen emakida berriro lizitaziora ateratzea, datorren astelehenean Kontratacio Atarian argitaratz, eskaintzak aurkezteko hamabost egun naturalekin, azken eguna martxoaren 16a izanik 23:59ak arte.

10.- ERROKO ESKOLA BERRITZEKO LANEN MEMORIA ETA DIRULAGUNTZA ESKATZEA ONARTZEA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza, eta jakinarazi du ikastetxe publikoak hobetzeko laguntzen deialdia argitaratu dela (abenduaren 28ko 313E/2024 EBAZPENA), Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiarena, bai eta laguntza horietara aurreko urteko deialdian aurkeztutako obrak jasoko zituen memoria aurkezteko eskolako zuzendaritzak egindako eskaera ere. Nasuvinsari eskatu zaio memoria eguneratua prestatzea.

Honakoa onartzea proposatu da:

1.- Dirulaguntzak eskatzea Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak eta Lehen Hezkuntzako-DBHko ikastetxe mistoak hobetzeko eta birmoldatzeko obren proiektuak gauzatzeko Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuentzako dirulaguntza deialdian.

2.- NASUVINSAK idatzitako memoria baloratua onartzea eta Erroko Eskola Publikoa birmoldatzeko eta eraberritzeko lanak egitea. Horren kostua honakoa da: 5.016,00 €, gehi 60 € memoria egiteko, gehi %21 BEZa.

- Leiho oszilobatientea jartzea

Kontrataren aurrekontua: 5.016,00 €

Memoria baloratua 60,00 €

Obren kontratuaren aurrekontua 5.016,00 € da (BEZ kanpo).

Memoria baloratua idaztea 60 € (BEZ kanpo).

3.- Abenduaren 19ko 313E/2024 Ebazpenean oinarritura, dagokion diru-laguntza eskatzea, eskatutako dokumentazioa garaiz eta behar bezala aurkeztuz.

4.- Abenduaren 19ko 313E/2024 Ebazpenean jasotako oinarriak betetzeko konpromezua hartzea, Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuentzako diru-laguntzen deialdiari buruzkoa, Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe mistoak Lehen Hezkuntza-DBH hobetzeko eta birmoldatzeko obren proiektuak gauzatzeko.

5.- Udalaren aurrekontuetan diru-hornidura nahikoa izateko konpromisoa, eskatutako diru-laguntzaren xede den obraren kostu osoari aurre egiteko.

11.- MARTXOAREN 8A: NAFARROAKO BERDINTASUN TEKNIKARIEN ERAKUNDE ADIERAZPENARI ATXEKITZEA

Martxoaren 8ko ospakizuna dela eta, aho batez erabaki da honako onartzea:

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Desberdinkeria errealtitate, justizia lortzeke

Aurten, Emakumeen Nazioarteko Egunean, Nafarroako Toki eta Lurralte Erakundeetako Berdintasun Teknikariekin mezu argi bat helarazi nahi du: Genero berdintasuna oraindik lortu gabe dagoen justizia sozialeko auzi bat da. Legeek eta araudiek berdintasun formala aitortu arren, berdintasun erreala ez da lortu, egunerokoan oztopo nabarmenei aurre egin behar baitiete lanaldi bikoitzak edo hirukoitzak egin behar dituztelako.

Nafarroako estatistikek hala erakusten dute: emakumeek gizonek baino % 20 gutxiago kobratzen dute, eta % 36 dira emakumeak lidergoko postuetan. Emakumeek betetzen zituzten, 2020an, lanaldi partzialeko enpleguen % 80 baino gehiago eta, gainera, familia betebeharrek haien lanaldia baldintzatzen dutela adierazten dutenen % 87 emakumeak dira. Haien denbora bikoitza ematen dute zaintza-lanetan eta etxeko lanetan, eta horrek eragin negatiboa izaten du kalitatezko enpleguak lortzeko eta, oro har, haien ongizatean. Horren adibide da zaintza lanen eraginez ordaindutako enpleguan emakumeek izaten duten inaktibilitate-tasa % 27,2 dela.

Sektore feminizatuak dira oraindik prekarizatuenak, eta batez ere emakumeek hartzen dituzte beren gain ordaindu gabeko lanak; eta horrek beren garapen profesionala mugatu eta bizitzaren eremu guztiei eragiten dien genero-arrakala iraunazten du. Arrakala hori areagotu egiten da emakumeak migratzaleak direnean, desgaitasunen bat dutenean, LGTBIQ+ kolektibokoak direnean, eta abar.

Ordaindutako eta ordaindu gabeko lanaren dualtasunaren emaitza egiturazko desberdintasuna da, urgentziaz agerian jarri eta konpondu behar dena. Horixe bera salatzen ari da feminismoa 60ko hamarkadatik, alegia, zaintza lanen kontzeptuaren esanahia berrikusi zenetik.

Ezinbestekoa da aurrera egitea emakume guztien lana aintzat hartu eta baloratuko duen gizarte baterantz, erantzukidetasuna eta berdintasun politikak sustatu eta berdintasun erreala eragozten duten oztopoak ezabatuko dituen gizarterantz. Fake news delakoa atzean uzteko garaia da, baita berdintasuna jada lortua dela baieztagaten duten mito antifeministak ere. Erakunde, enpresa eta herritarrei arduraz jokatzeko eskatzen diegu oraindik ere gure gizartean irauten duten genero arrakalak desagerrazteko. Horretarako, adierazpen honen sinatzaileok honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Erantzukidetasuna sustatzeko sentsibilizazio programak eta kanpainak diseinatu eta abian jartzea, gizonak eta emakumeak neurri berean inplikatuz eta interseksionalitatea kontuan hartuz, egoera zaugarrienetan dauden kolektiboen behar espezifikoei erantzuteko.
- Gure erakundeetako generoari loturiko soldatzaileen jarraipena eta ebaluazioa egiteko neurriak garatzea, eta bermatzea lan-hitzarmenek eta -akordioek emakumeen lanaren balorazio justua islatzen dutela, bereziki sektore feminizatuetan.
- Ordaindu gabeko lana bizitzaren iraunkortasunerako ardatz nagusi gisa aitortzen eta baloratzen duten tokiko politikak ezartzea, eta pertsona guztientzako zerbitzu publiko unibertsalak bermatzea.
- Genero-berdintasunari buruzko etengabeko prestakuntza eskaintza gure erakundeetako langile guztiei, eta politika publikoak eta administrazio-erabakiak genero-ikuspegiarekin aplikatzen direla ziurtatzea.
 - Mugimendu feministak arlo horretan egindako ekarpenak eta lana aitortzea, eta antolatzen dituzten ekitaldi eta kontzentrazioetan parte hartzera gonbidatzea.

Ekintza horiek Nafarroa berdinzaileagoa eta feministagoa eraikitzen lagunduko dute, non emakumeek baldintza berdinetan parte hartu ahal izanen dugun bizitzaren eremu guztieta.

12.- CERDERNA, ESKUALDE BERRIA ETA PARTAIDETZA KUOTA ONARTZEA

Alkateak hartu du hitza eta Cedernari buruz esan du hainbat bileratan esan zela jada, eta bilera horietara Jimenez Rey zinegotzi andrea joan zela, eskualde berri bat sortzekoa zela Esteribar gure eskualdetik atera eta beste tokiko erakundeek osatutako eskualde berri batera joatekoa zelako. Halaber, egoera berriari eta eskualde horretan lan egiten duten langile teknikoek lanaldiaren% 50,% 66 edo% 75 beteko duten kontuan hartuta ezar daitezkeen kuota ekonomikoei buruzko informazioa eman zen. Era berean, jakinarazi du hainbat bilera egin ondoren, tokiko erakunde askok iritzia eman behar izan dutenez, aho batez erabaki dutela lanaldiaren % 75 aukeratzea. Jimenez Reyk zinegotzi andreak hartu du hitza eta jakinarazi du proposamena Cedernako batzarrera eramango dutela, hark zer dioen ikusteko. Eskualdeka ordaintzen den kopuru finkoa txikitzea ere baloratzeko eskatuko zaie, kontuan hartuta Cedernak daramatzan eskualde guztiatik biztanle gutxien dituen eskualdea dela hau. Bestetik, gure Eskualdearen bigarren ordezkaritza erabaki behar da asanbladarako, zati bat Esteribarren esku baitzegoen, baina hori aurrerago erabakiko da.

Aho batez erabaki da entitateek aho batez hautatu duten %75eko lanaldia berrestea.

13.- AROZTEGIKO MOZIOA ONARTZEA

Garralda zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du ez dagoela ados mozioarekin, gehiegizkoa iruditzen zaio kondena, baina obra-baimena dute eta, horregatik, bere botoa aurka izango da. Bidaurreta zinegotziak ere adierazi du aurka bozkatuko duela, gaiaren inguruan iritzirik eman behar ez delakoan.

Hortaz, aldeko lau botoz (Remiro Esnoz, Jiménez Rey, Nuño Iturri eta Zaldúa Ortiz de Guzman), aurkako bi botoz (Bidaurreta Azkarate eta Garralda Erro), eta abstentzio batez (Gil García), honako mozioa onartzea:

EUSKAL HERRIKO UDALEN MOZIOA

Aroztegiako Auzipetuei Elkartasuna Adierazi eta Absoluzioa Eskatzeko

Aroztegiko proiektuak, 340 biztanle inguru dituen Lekarozko herrian hotela, golf

zelaia eta 228 luxuzko etxebizitza egitea planteatzen du. Baztango etxeen %36a etxe hutsak edo bigarren etxe bizitzak direla jakinik, hasieratik nabarmena izan da proiektu honen izaera espekulatzailea. Lekaroztarrek eta Baztandarrek behin eta berriz proiektu honen kontrako iritzia adierazi badute ere, Nafarroako Gobernuak UGEPA (Udalez Gaineko Eragina duen Plana) gisa onartuz proiektu hau inposatzen tematu da. Modu honetan, Nafarroako Gobernuak herritarren interesak defenditu beharrean, interes pribatu eta espekulatzaileak defenditu ditu, heriterrak inposizio honen aitzinean beren burua defenditzera behartuz.

Hondar urteetan, Aroztegia proiektuaren kontrako oposizioan parte hartu duten Baztandar herritar eta ordezkariet jazarpen judizial eta ekonomiko nabarmena pairatu dute. Proiektu honek pelotazo urbanistiko bat burutzea du helburu, eta Nafarroako Gobernuak UGEPA onartu izanak Baztango instituzioen eskumenak eta herritarren erabakitzeko gaitasuna urratu ditu.

Prozesu honetan, empresa pribatu baten mesedetan, demokrazia eta herritarren borondarea alde batera utzi dira. Baztandarrek beren etorkizunaz erabakitzeko duten eskubidea urratu dute, herri eta nekazal lurrik desjabetuz, baliabide naturalak kaltetuz, eta desegituraketa soziala zein hizkuntza eta kulturaren gainbehera eragingo lukeen proiektua bulkatuz. Hau Euskal Herrian historikoki eman den zapalkuntza eta inposizioaren bertze adibide nabarmena da, herri zapaldu eta okupatua garela berretsiz.

Horrez gain, 2021ean akanpada baten bidez Aroztegiko obrak geldiarazteko desobedientzia ekimena aitzin eramateagatik zazpi auzipetuek pairatzen duten egoera salatu nahi dugu: epaijeta izanen dute eta denera 20 urteko kartzela eta 56.000 euroko fidantza eskatu diente zigor gisa. Ez da zilegi eta ez da bidezkoa heriterrak eta ordezkariak kriminalizatzea denenak diren lurrik eta baliabideak defendatzeagatik.

Horrenbertzez, udal honek honako hau erabakitzentzu:

1. Elkartasuna adieraztea Aroztegiko obra gelditzeagatik auzipetutako zazpi herritarrei, eta beraien absoluzioa eskatzea.
2. Baztango herritarrek eta ordezkariet prozesu honetan jasan duten jazarpen judiziala eta ekonomikoa salatzea.

3. *Herrien burujabetza eta erabakitzeko eskubidea aldarrikatzea, eta pelotazo urbanistiko eta inposizioen aitzinean Euskal Herriko herritarrek beren etorkizunaz erabakitzeko duten eskubidea defendatzea.*
4. *Otsailaren 1ean Iruñean eginen den manifestazio nazionalean Udal honen atxikimendua adieraztea, eta herritarrei bertan parte hartzeko deia egitea.*
5. *Nafarroako Gobernuari UGEPa gelditzeko eskatzea, bere erantzukizuna baita proiektua behin betirako gelditzea.*

14.- ELIZA KATOLIKOAK NAFARROAN IMMatrikulaturiko ONDASUNEN ZERRENDAN BALIZKO HERRI-ONDASUNAK DAUDEN AZTERTZEKO HITZARMENARI ATXIKITZEA. NUKFAREN PROPOSAMENA.

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren (FNMC) arteko HITZARMENAREN berri eman du, Eliza Katolikoak Nafarroan immatrikulatutako ondasunen zerrendan eta NUKFren gonbidapenean sartuta dauden herri-ondasunak egon daitezkeen aztertzeko. Jakinarazi du hitzarmen horrek aukera ematen duela herri-ondasun posibleen azterketa teknikoa eta ikerketa egiteko, gero, hala badagokio, ondasun horiek defendatu eta berreskuratzeko.

Horregatik, eta Udalak zerbitzu hori gure lurralteko eremuan dauden zerrendako ondasunetan garatu ahal izateko interesa izan dezakeelakoan, zerbitzu horri atxikitzea proposatzen du.

Hortaz, Udalaren Osoko Bilkurak erabaki du aho batez:

1. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko lankidetzarako hitzarmen-markoari atxikitzea, Eliza Katolikoak Nafarroako Foru Erkidegoan immatrikulaturiko ondasunen zerrendan balizko herri-ondasunak dauden aztertzeko.
2. Erabaki horren berri ematea Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari (fnmc@fnmc.es).

15.- GAZAKO MOZIOA ONARTZEA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta proposatu du, Gazan dagoen egoera ikusita, herri palestinarraren aldeko mozioa onartzea. Mozioa jarraian transkribatzen da.

Bidaurreta zinegotziak hitza hartu du eta galdetu du ekimena nondik datorren eta alkateak erantzun du Aurizko Udalak proposatu duela.

Udalbatzak erabaki du aho batez honako mozioa onartzea:

PALESTINARREN ALDEKO MOZIOA

Joan den urtarrilaren 19an su-etena indarrean sartu zen palestinarren eta israeldarren arteko gatazkan. Inpunitate osoz eta erabat planifikatuta, Israelgo gobernuak herri palestinarraren aurka burutzen ari den genozidioa gelditzeko esperantza.

Hala ere, su-eten ahul hori hausteko mehatxua sinatu zen egun beretik berretsi zen. Etengabe, eta Israelgo armadaren partetik, Zisjordanian Giza Eskubideen urraketak, eraispenak eta hornikuntzarako oinarrizko azpiegituren aurkako erasoak (ur tankeak eta zisternak) eta hilketak izan dira bai Gazan eta baita Zisjordaniako errefuxiatu palestinarren zelaietan ere Su-etena sinatu zenetik, indarkeria eta suntsiketa ez dira minutu bakar batean ere gelditu. Joan den otsailaren 5ean, Estatu Batuetako gobernuak, Donald Trump presidentaren bitarte, bere asmo eta proposamen irmoaren berri eman zuen: herri palestinarra sarraskitzeko eta suntsitzeko planak aurrera eramatea, palestinar herria bere etxeetatik eta lurretatik kanporatzea eta herri palestinarraren kultur eta ondare aberastasunaren edozein aztarna ezabatzea helburu duten proiektu megalomanoetarako lurak eskuratu eta lapurtzea.

Israel – Estatu Batuak aliantza sionista egunero filtratzen da hedabideek errepikatzen duten diskurtso eta propaganda ofizialean, bi herrialdeen adierazpen ofizialetan eta mundu osoko herrialde ugariren isiltasunean, horien artean Europar Batasunekoak Isiltasun konplizeak, II Mundu Gerran hildako milaka eta milaka pertsonak eta sarraski eremuak ahazten dituzten isiltasun amnesikoak. Isiltasun miopeak, apartheidia, garbiketa etnikoa, lurren okupazioa zuritzen dutenak, duela 80 urte bere baitan bizi izan zutenean.

Erroibarko Udaletik bat egiten dugu munduan zehar eta gizarte zibiletan genozidioa gelditzea eta Palestinako bakea bermatzea, bizitzaren eta pertsonen duintasuna bermatzea eta Palestinako herriaren askatasun eta autodeterminazio eskubidea aitortzea eskatzen duten ahots anitzekin.

Horregatik guztiarengatik Erroibarko Udalak honakoa erabaki du:

A).- Spainiako Gobernuari hau eskatzea:

Israel bezalako gobernu genozida batekin harreman diplomatiko, kultural, kirol, akademiko eta ekonomiko guztiak erabat haustea.

Armen salerosketa berehala eta modu ezeptaezinean etetea.

Nazioarteko armamentu-trafikoan itsasoko eta lehorreko portuak erabiltzeko erabateko eta hausturariak gabeko debekua.

Estatuko eta Europako ekitaldi guztiak Israelgo edozein kultur eta kirol adierazpenetik kanpo uztea eta ezabatzea, Israelek egindako genozidioaren zuriketaren eta normalizazioaren konplize izateagatik.

B).- Erabaki hau Spainiako Gobernuko Kanpo Arazoetako Ministerioari, Nafarroako Gobernuko Kanpo Arazoetarako Zuzendaritza Nagusiari eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari jakinaraztea.

Gai-zerrendatik kanpo, Remiro Esnoz alkateak proposatu du lehenbailehen jorratzea 0,7ari buruz batzordean eztabaidatu zen baina gaur NUKFtik iritsi den gai bat, Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Tokiko Funtsari laguntzeko, toki-erakundeek proiektu zabalagoetan parte har dezaten, horrelako proiekutuetan jardungo dutela bermatuz.

Parte hartzeko bi modu daude, urtekoa eta jarraia. Proposamena, esan bezala, urterokoa izatea da, eta aurten %0,7ko aurrekontu-partidatik geratzen diren mila euroekin parte hartzea, partidaren gainerako zatia beste bi proiekututan banatu baita dagoeneko.

Aho batez erabaki da puntu hau jorratzea eta Udalak programarekin bat egitea urteko lankidetza modalitatean, urtero aurrekontuan jasotako partidan oinarrituta eta 2025. urte honetan 1.000,00 eurorekin lagunduz.

16.- BESTERIK

1 Arloa (Gizarte ongizatea, osasuna eta berdintasuna) Jimenez Rey zinegotziak informazioa eman du
Berdinatsuna

Martxoaren 8ko kanpainarekin bat egin izanari buruzko infomazioa egin da. Kanpaina horrekin batera, kontzejuetan banatuko diren kartel batzuk jarri dira. Benetako desberdintasunarekin eta egiteke dagoen justiziarekin du zerikusia. Bihar arratsaldean mahai politikoa bilduko da.

Bestetik, zerbitzua indartzeko eman den 15.000,00 euroko emendakinaren gaia dago, eta berdintasun agenteak zerbitzu osorako proiektu bat idazterea bideratuko da, baita indarkeria-diagnostikoaren berritze bat jasoko dituena Artzibarrerako eta Oroz Betelurako, ez baitute halakorik. Partida hori kontuan hartu beharko da 2025eko aurrekontua egiterakoan

Azkenik, jakinarazten da berdintasun agente lanpostua kontratatzeko laguntza ukatzeagatik aurkeztutako gora jotzeko errekursoaren ebazpenaren zain gaudela. Udalbatza jakitun da.

2. Arloa (Kultura, kirola eta euskera) Nuño zinegotziak informazioa eman du Musika Eskola.

Nuño zinegotziak jakinarazi du eskolako aurrekontuak aurkezteko bilera egin ondoren, Erroibarko matrikulak 27 izatetik 35 izatera pasatu dira, eta 2025eko ekitaldi honetarako 14.475,00 euroko urteko kuota ezarri dio Udalerri.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3 Arloa (enplegua, industria, energia eraginkortasuna, turismoa, landa garapena) Remiro Esnoz alkateak eman du informazioa

JTPH

Remiro Esnoz alkateak esan du Zeruko Begiratokiaren proiektua PSTD proiekturei dagokienez (kontzejuekin egindako bileran aztertu zen, ea nor egon zitekeen interesatuta), Aintzioako Kontzejuaren eskaera jaso dela, bere herrian jartzeko interesa agertuz.

Suteen aurkako Planari dagokionez, egiten ari da. Bidexken proiektua esleipen fasean dago eta, Sorogaingo zentroari dagokionez, Kaizen aholkularitzak behin betiko memoria bidali du, baloratzeko bilera bat egitea proposatuz. Baldintza administratiboen agiriak prestatzeari dagokionez, oso konplexuak direnez, Kaizenekin hitz egin da haien nola idatzi aztertzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Energia eraginkortasuna

Energia-eraginkortasunari dagokionez, proiektu bat aurkeztu da energia-eraginkortasunerako laguntzen deialdira, Sorogaingo aterpetxerako energia-ikuskaritzara.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Iratzi-Orreaga elkartea

Elkarteko helbide elektronikoa eman zaie egin behar diren fitxak betetzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Guifinet

Guifineti eta egiteke dagoen bilerari dagokionez, on line egingo da martxoaren 7an, 16:00etan. Nolanahi ere, jakinarazi du Fundazioaren egoerak hohera egin duela.

Udalbatza jakitun da.

Erroibar-Bus

Erroibar-Bus proiektuaren balorazio txostenaren aurkezpena, non honakoak jasotzen baitira:

Datu orokorrak: 6 aste eta erdi, 119 erabiltzaile, astero 18 pertsonek erabili zuten zerbitzua

On line inkestaren datuak, gogobetetze-maila eta iradokizunak, hobetzeko proposamenak. Eragile laguntzaileen ekarpenak falta dira, Amavir zahar etxearen eta Osasun Zentroaren ekarpenak jaso dira. Aurkezpena bidaliko da. Balorazioa oso positiboa da, baina denak bat datozen oso laburra izan dela.

ETB1ek proiektuari buruzko programa egin nahi du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

19:17an Garralda zinegotzia bileratik irten da.

4 Arloa (mendiak, abeltzaintza, bazkalekuak, ingurumena, ondarea, hondakinak) Informazioa Zaldua Ortiz de Guzman zinegotziak eman du

Abeztzaintza azpiegiturak

Zaldua zinegotziak jakinarazi du laster abeltzaintza azpiegituretarako dirulaguntzak argitaratuko direla eta bilera egingo dela zer aurkeztu adosteko. PAC delakoaren lana egiteke dago.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Kintoko Mankomunitatea

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du Ingurumen Sailak baimendutako uxaldi berezi bat tramatatu dela eta ibarrean dauden lau elkarrekin gonbidatu direla. Martxoko lehen bi asteburuetan izango dira. Orain arte, Iremendi alkarteak baino ez du erakutsi interesa eta berari esleitu zaio.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

5 Arloa (hirigintza, azpiegiturak, etxebizitza)

Tokiko Azpiegitura Plana 2026-2028

Nuño zinegotziak jakinarazi duenez, kontzejuekin hitz egin ondoren, bihar arloaren bilera egingo da TAPri zein proiektu aurkeztu aztertzeko, eta martxoaren 6an beste bilera bat egingo da memoriak idatziko dituen ingeniariekin.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

“Uraren zikloa” lanak

Jakinarazi da bilkura berezia egingo dela lanak adjudikatzeko baldintza agiria onartzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Nuño zinegotziak hartu du berriz ere hitza eta Erroibarrerako tokiko garapen estrategia bat sortzeari lotutako prozesu parte-hartzailearen berri eman du, eta Garralda eta Zaldua zinegotziek parte hartuko dute. Proiekta parte hartzeko prozesuetarako laguntzen 2025 deialdira aurkeztuko da

Zaldua zinegotziak dio aurten Vianako Printzea sarietara Juan María Martinez Choperena aurkeztuko dela.

9.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Gil zinegotziak hartu du hitza. Batetik, Lintzoaingo arketari buruz galdetu du azken obretan egin baizen eta ez du irensten, eta, bestetik, Odiako iturburuari buruz. Nuño zinegotziak erantzun du ingeniariekin hitz egin zuela eta horretan ari dela irtenbidea bilatzeko. Odiako iturriari dagokionez, ingenariak oraindik ez du ezer aurkeztu eta, lehorterik ez dagoenez, gaia pixka bat alboratuta utzi da. Edonola ere, gaiari berriro helduko dio eta dagokion arloan landuko da.

Laurentxin ateratzen ari diren pinuei dagokienez, Gil zinegotziak aipatu du Lintzoaingo kontzejuari ez zaiola jakinarazi. Alkateak erantzun du ez daukala ziurtasunik, baina uste zuela egin zuela, baina egiaztatuko duela dio.

Era berean, galdetu du ea hitz egin den Mickaelarekin aterpetxeko aparkalekuari buruz, eta Zaldua zinegotziak erantzun du saiatu zela, baina ez dela modurik egon, nahiz eta saiatzen jarraituko duen.

Azkenik, galdetu du ea zer gertatzen den Gurbizarrekin eta egindako obrekin, ea hor biziñen ari diren edo zer egiten ari diren. Alkateak erantzun du ez dakiela zer ari diren egiten. Idazkariak hartu du hitza eta adierazi du duela egun batzuk gaia eraman duen Nafarroako Gobernuko abokatuarekin hitz egin zuela, eta esan ziola gaiari berriro helduko ziola, Nafarroako Gobernuaren eskumena baita. Hala ere, obra eta hirigintza lizenziaren gaia udalaren eskumena da, eta alde horretatik jardun beharko lukeela dio.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 19:40ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.

